

## **LEHENENGO ARGAZKI LEHIAKETA**

### OINARRIAK

1. Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak, lehenengo argazki-lehiaketara deitzen du, ikurritz honekin: “**Sentsibilitateaz zaintzea**”.
2. Lehiaketa EHUko erizaintzako ikasleentzat eta erizaintzako profesionalentzat da.
3. Hauxe izango da saria: Panasonic DMC FZ 8EGM argazki-kamera.
4. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztuko ditu.
5. Hauxe izango da argazkien neurria: gehienez, 20 x 30 cm. Formatua, librea: 2/3. 3/4. 16/9. etab.
6. Argazkiak, negatiboak edo CD fitxategia (argazkia digitala bada), gutun-azal itxi batean igorriko dira, eta atzealdean argazkiaren izenburua bakarrik idatziko da. Beste gutun-azal itxi bat ere igorriko da, kanpoaldean argazkiaren izena idatziko dela, eta barruan egilearen datuak idatziko dira (izen-abizenak, lanbidea, lantokia, helbidea, telefonoa, faxa eta helbide elektronikoa). Argazkiak saritzen ez badira, egileak, nahi badu, Eskolari laga diezazkioke, irakaskuntza-arloan erabil ditzan. Agiri horiek hona bidaliko dira: **Erizaintzako Unibertsitate Eskola, XIX. Kultur Jardunaldiak – Argazki Lehiaketa** (Jose Atxotegi kalea z/g. – 1009 Vitoria-Gasteiz)
7. Argazkiak jasotzeko azken eguna: **2.008ko apirilaren 18a**.
8. Eskola izango da aurkeztu eta saritutako argazkiaren jabe, eta Eskolak bere argitalpenetan edo jardueretan argitaratzeko eskubidea izango du, baita irabazi-asmorik gabe eta egilea nor den aipatzen erabiltzekoa ere. Saritu ez diren gainerako argazkiak eta negatiboak, Eskolako Idazkaritzan jasoko dira, maiatzaren 15etik 30era.
9. Eskolak izendatutako lau kidek osatuko dute epaimahaia.
10. Epaimahaiaren erabakia **XIX. Kultur Jardunaldien** bukaera-ekitaldian jakinaraziko da. Ekitaldi hori, **Vitoria-Gasteizen izango da, 2.008ko maiatzaren 8an eta 9an**.
11. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da.
12. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar berekin.